udako
euskal
unibertsitatea

B MAILAKO IKASTAROA

(TITULO DE 2.° NIVEL)

IRUINEA 1977

udako euskal unibertsitatea

V. UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

IRUINEA 1.977

B MAILAKO TITULURAKO IKASTAROA



SAILBURUA: IÑAKI AZKUNE

IRAKASLEAK: Mari Karmen garmendia

Karlos Otegi

Lupe Artola

Patxi Geenaga

Dionisio Amundarain

MORFO - SINTAXIA

Sarrera gisa

1. Morfo-sintaxiaren xedea

a) Izen nahiz aditzen errejimena aztertu:

- aita semearengana etorri da ala aita semeari etorri zaio
- jarraitu diot ala jarraitu natzaio

b) hitzen ordea aztertu perpaus sinple nahiz sintagma txikiagotan:

- aita etorri gaur da?
- haur besoetakoa?

c) perpaus sinple/subordinatu arteko ordena

2. Osakaien funtzio desberdintasuna

Hitzen artean ordenaren bat baldin bada, perpaus nahiz sintagma txikiagoen osakaiek funtzio desberdina dutela esan nahi da:

- substantibo, adjetibo, izenorde, adizki, juntagailu...
- subjektu, osagarri...
- funtzioen arabera, sintagma edo multzoak sailkatu
- sintagman elkarrekin lotzeko erabili ohi diren truko edo juntagailuak bereizi eta sailkatu

3. Oinharrizko bi arazo euskal sintaxiari ekitean

a) Euskara mintzatua eta euskara idatzia.

- Sebero Altubek eta jarraitzaileek: euskara idatziaren joskera mintzatuaren kopiatzat ematen dute.
- Villasante eta Mitxelenak: e.a.: idatziak bere lege

propioak ditu (Ikus Euskera, 1956, II. eta hur. or.).

b) Euskarak joskera guztiz berezia? Beste hizkuntzena ezbezalakoa guztiz?

- Altubek eta jarraitzaileek halatsu diote. Horien eritzi, euskal idazle zaharrek euskal joskerarekin hautsi bide dute, latinarena hartuz.
- Mitxelenak, aitzitik: "Egungo prosa, gaiak bereizten ez duenean, ez da hizkuntza batekoa eta batena, nazio artekoa baizik" (Idazlan Hautatuak, 114 or.).

4. Idazle zaharren joera

Idazle zeharren aurkako joera, puntu askotan agertu da.

Altubek emaniko galdegai delakoaren printzipioa bera ere nahiko hertsia datek idazle zaharren joerarekin alderatuz.

Batipat, ordea, anaforiko (zein, zer, nor, noiz e.a. interrogatibo bezala erabiltzeaz gain, izenorde bezala ere erabiltzea) direlakoen puntuak sor erazi zuen. Honela erabiltzeak halegia: "Jesukristo gure jauna, zeiña konzebitu zan Espiritu Santuaren graziaz eta bertutez".

Azken finean, eta laburtuz, esan genezake, hizkuntza orok duela bere berezitasuna, bestetan bezala, bere joskeran. Halere, handiagoak dira kidetasunak; batipat, hizkuntz hauzatasuna dela bide.

Etsenplutzat hau ipini ohi da: lehen Antton ez etorri da esaten bazen, gaztelaniaren influentziaz Antton ez da etorri esatea.

MORFO-SINTAXIA

(Zenbait oharpen nagusi, gainez gain)

(Ikus laburpen bat ona, Lafon: Langue Basque, in Bulletin du Musée Basque, 1973, 59. zenbakian).

1. Linguistikaren azpizientziak

- Semantika
- Morfo-sintaxia
- Fonologia
- Fonetika

2. Morfo-sintaxiaren objektua

- Gaur egungo zenbait hizkuntzalariri ez zaio atsegin morfologia eta sintaxia bereizketa.

- Tradizionalki honela egin ohi da bereizketa hori:

  . morfologiak hitzen formak aztertuko lituke: adizki diferenteak, deklinabidezko kasuak, hitzen konposaketa eta deribaketazko formak, kategoria gramatikalak (generoa, zenbatekoa, denbora, modua, tankera (=aspectos)...

  . sintaxiak, berriz, hitzen edo, hobeto esan, sintagmen funtzioak aztertuko lituke.

Agian, euskaraz, geure inguruko hizkuntzetan baino gutxiago egiten ahal dugu bereizketa hori. Horregatik goiko gure titulua: morfo-sintaxia. Dena den, morfo-sintaxiaren objektua zein den garbi adierazten du goian aipatu deskripzio horrek: hitzen formak, sintagmen funtzioak, hitzen eta sintagmen hurrenaldia perpausan...

Oharra.- Esan behar da, entonazioak eta azentuak ere, sintagma

eta perpaus barruko erlazioak markatzen dituela. Zuberoeraz, esaterako, mintzatuz eta idatziz ere, markatu egiten da zenbait diferentzia morfologiko eta sintaktiko:

nomin. mugagabe: elíza, alhába
nomin. sing. : elizá, alhabá
ergat. mug. : elízak, alhábak
ergat. sing. : elizák, alhabák

(Ikus gehiago Lafon, in Boletin Amigos País, 1957, 8 or.)

3. Zenbait puntu nagusi euskal morfologiaz

3.1 Erroa. Batzutan soilik erabili ohi da, atzizkirik gabe:

- nominatibu mugagabea: adiskide, lagun
- aditz erroak: har, etor...

Zenbait hitzek, e, o, i letrez amaituk, aldatu egiten du inoiz bokal hori: luze-luzatu, zulo-zulatu, ardi-artegi...

3.2 Generoa. Esan daiteke, euskaraz substantibu eta adjetibuetan ez dela generorik.

- Halere, ipar euskalkietan eta erronkarieran hor dute -sa (-tsa) atzizkia (ofizio, sozial izakera ... adierazten duten zenbait hitzetan): okhin-okhintsa, alargun-alarguntsa.

- Hor dira ere: errege- erregina...

Ikus ere Txomin Peillen in Euskera, 1972, 87-91 orr., zuberoerako zenbait atzizki eme aipatzen dituelarik:

- -ina: anglesina
- -ika: españulika
- - a (erderaz bezala, dio berak): biarnes-biarnesa, polones-polonesa
- tsa: amerikeintsa, italientsa, belgikeintsa, parisentsa, alemantsa.

3.3 Zenbatekoa.

Euskaraz, inguruko erdarek ez-bezala:

- singular-plural
- mugagabea (ez singular, ez plural dena)

3.4 Deklinabidea.

- Deklinabidean, kasu atizkiez gain, epentetikak ditugu:

  . e : bi kontsonante arteko loturizkia: Beasain-e-n, Gasteiz-e-n, lurr-e-a-n...

  . r : bi bokal arteko loturizkia: etxe-r-en, herri-a-r-en...

- Izenlagun eta susbstantibuz moldatu sintagman, eskuarki azken elementua deklinatzen da soilki: ardo gorri nafarra.

- Deklinabidezko kasu-atzizkiak erastean, kasu hontan bakarrik aldatzen da erroa: hau a letraz amaitu eta kasu-atzizkia a edo e letrez hastean: ama - ak = amak; ama - ek = amek.

  Hori euskara batuari buruz da. Euskalkietan besterik ere gertatzen bait da:

  . zuberoeraz: azentua tokiz aldatzen da:
  zélu, zelúko, zelía
  elíza (nom. mug.), elizá (nom. mugatuan),
  méndi, mendía, mendiétan...

  . gure artean: eliza, elizea...

- kasu-atzizkiak nola erants:

  . zuzenean erroari izen propioetan, epentetika tartekatu behar ez denean: Lazkao, Lazkaok, baina Lazkao(r)j

  . izen arrunta eta adjetibuetan:

  - mugagabean, zuzenean, epentetika kontutan hartuz

- singularrean, a marka eta epentetikak tartekatuz
- pluralean, e eta epentetikak tartekatuz.

- -en eta -ko atzizkiek, genitibukoek alegia, adjetibu bihurrerazten dute izen sintagma, eta berriro deklinagarri:
  - gizonaren -a, -ak, -ari, -aren... (gizonaren etxea, etxeak, etxeari, etxearen...)
  - etxeko -a, -ak, -aren, -ari... (etxeko gizona, gizonak, gizonaren, gizonari...)
- euskaraz akusatiborik ez da: baina nominatibua eta ergatibua ditugu: nominatibuan subjektua nahiz osagarri zuzena joan daitezke: ergatibuan subjektua bakarrik.

4. Izenorde pertsonal, erakusle eta posesibuak.

Forma biziak (intentsibuak) eta arruntak dituzte.

4.1 Pertsonalak

- Formak

ni ..... neu, nerau, neror, nihaur
hi ..... heu, eorri, ihaur
gu ..... geu, gerok, geurok, gihaur
zu ..... zeu, zeori, zihaur
zuek ..... zeuek, zerok, zihaurirk

- Erabilkera
  - izenorde pertsonala galdegai denean, intentsibua: "neuk egin zuen gizona, neurk deseginen dut" (Ax 80)
  - Neroni forma neu-ren datibua da, eta ez nominatibua.

4.2 Posesibuak

- Formak:

nire/ene ..... nere/neure
hire ..... heure/here
haren ..... bere
gure ..... geure/geron, geren/guhauren
zure ..... zeure/zere
zuen ..... zeuen
haien ..... bere/beren /heuren

- Erabilkera

. Posesibuak adierazi pertsona aditzean sartzean (nor-nori-nork bezala), intentsibua
. Posesibua galdegai denean ere intentsibua: hori ez da zurea, neurea (galdegai) baizik.

4.3 Bere posesibua eta bera erakuslea. Ez nahas biok.

Posesibua

bere liburua du; beretzat du; berea du; berekin du...

erakuslea

bera etorri da; berak egin du; berari esan diot; berarengan ikusi dut hori...

. toki berean ..... bertan, han bertan...
toki bereko ..... bertako, han bertako...
. Ez dira gauza bera:
etxe berean bizi dira - etxean bertan (berean) bizi dira
maisu berak eskolatu ditu - maisuak berak eskolatu ditu.

5. Aditza.

- nor / nor-nori / nor-nork / nor-nori-nork.

. nor bakarrekoa: naiz, gara, dago, zetorren...

. nor-nori-koa: natzaio, gatzaizkio, dagokio, zetorkidan...

. nor-nork: dut, nau, dakart, neraman...

. nor-nori-nork: diot, dit, dakarkiot, neramakion...

Oharra:

Nor-nori-nork-eko formak kasu hauetan bakarrik erabiltzen dira: NOR hirugarren pertsona (hura, haiek) denean; halere, forma zaharretan bestelakorik ere ikusten da:

. "redimitu garauzkak (NOR gu, NORI hari, NORK hik) Jaungoikoari heure odolaz" (Leizarraga)

.. "zuk ni aitari eroan nautsazu edo eraman naraukazu (niozu)" (NOR ni, NORK zuk, NORI hari) (Azkue, Morfologia 808 zenb.).

- alokutibua

. zuberoeraz, perpausa independiente edo nagusietan (galderazkoetan izan ezik) beti alokutibua:

. jín (etorri) dúzú (dúk/dún) = etorri da

. ikhúsi dízú (dík/dín) = ikusi du

. Baina, núr jín da?, núrk ikhúsi dú? (galderazkoak direlako).

. Izan-ek ez du alokutiburik; ukan-ena hartzen du: nauk/ naun/ nauzu...

. atzizki alokutibuek ez dute erlaziorik deklinabidezko kasuekin; nor, nori, nork-ek ezbezala.

. subordinatuetan ez da alokutiburik erabiltzen (zenbait kasutan, horixe, hots, alokutibu forman ez baina forma arruntean egotea, izango da proposizio bat koordinatua ala subordinatua den jakiteko): "nik atzo, hik baino bide gehiago iragan nian (alokutibua), inguratu bainuen (forma arrunta edo indeterminatua, su-

bordinatua delako) mundu guztia" (Axular 21).

- <u>trantsitibu-intrantsitibu; pasibu-aktibu</u>

Ikus puntu hortaz Jesu Oregi, Euskera 1975, 359-372. orr.

. Hitz batetan esateko, ez da konforme auktorea trantsitibu-intrantsitibu sailkatze hortaz.

Beste sailkatzen honen alde mahurtzen da gogotiago:

. NORdunak (NOR-NORI-dunak)

. NORdunak (NOR-NORIdunak)

. NOR-NORKdunak (NOR-NORI-NORKdunak)

. Bidenabar, Stempf eta Schuchard-ek jaulkiriko teoriaren, hots, euskal aditzaren pasibutasun teoriaren, aurka mintzo da. Ikus ibiden zabalago eta Bibliografia ere.



- <u>Adizki pertsonadunak eta pertsonagabeak</u>

. Pertsonadunak:

. moduak

. aldiak

. tankera (aspecto): ikusi, ikusten, ikusiko

. Pertsonagabeak:

. aditz radikala: etor, ekar, eraman, ikus

. partizipio burutua: ikusi, ekarri, eraman

. partizipio bururtugabea: ikusten, ekartzen, eramaten

. partizipio "perficiendo"a: ikusiko, ekarriko...

. aditz substantibua: ikuste, ekartze, eramate...

- <u>Perifrastiko - sintetiko</u>

. perifrastiko: aditz laguntzailez jokatzen direnak: etorri naiz, eraman dut...

. sintetikoak: morfema guztiak aditz signifikatibu berak daramatza: dator, dabil, daramatza, datorkit...

- Sintaxi mailako morfemak subordinatuetan

. Subordinazioa, gehienbat, atzizkiz nahiz aurrizkiz markatzen da, pertsonadunei ezarriz.
Lau dira marka horiek: -n, -la, ba-, bait-.
Erants dakieke beste atzizki batzuk ere -n eta -la atzizkiei: datorrelarik, datorrenean...

6. Sintaxia.

Hitzen nahiz sintagmen nahiz perpausen arteko erlazioak aztertzen eta estudiatzen ditu.

6.1 Erlazio paradigmatiko eta sintagmatikoak

(Ikus sintagma eta paradigma kontzeptuak in "Linguistika eskola berrien zenbait ideia" 5.folioan (Apunteak): SINTAGMA / PARADIGMA).

6.2 Perpausa: definizioa

"Llamamos oración al conjunto formado por un verbo en forma personal, con todos los elementos que directa o indirectamente se relacionan con él. En una elocución habrá, por consiguiente, tantas oraciones gramaticales como verbos en forma personal contenga" (Gili Gaya; aipatua: Villasante, Sintaxis de la oración compuesta 9. orr.).
Halere, pertsonagabeko edo jokatu gabeko aditzek proposizio subordinatua molda dezakete.
Beraz, perpaus konposatuan bi edo gehiago proposizio izan daitezke, elkarren artean josirik.
Beren artean nola lokera duten halako perpaus mota moldatuko dute.

6.3 Perpaus motak

- esakuntza edo proposizio soilak; udaberria gainean dugu
- esakuntza bi edo gehiagokoak:
    - segidako edo yuxtapuestak: ez dute juntagailu edo konjuntziorik lokera egiteko; puntuaziotik edo atera behar da zer diren: "zeurk egin duzu bekhatua, eztuzu zeurk aiphatu nahi" (Ax 332); goiz etorri zara, goiz aldegin nahi duzu.
    - koordinatuak.
        - Azkuek dio, subordinatuen arteko lokera afijoen bidez egiten dela, eta koordinatuena hitz independienteen bidez; hori, ordea, ez dago hain garbi: subordinatuek ereerabiltzen bait dute hitz independienterik
        - Bestalde, ez da beti gauza erreza perpaus bat subordinatua ala koordinatua den ateratzea.
        - hona perpaus koordinatuen motak:
            - kopulatibuak: elementuak bata besteari erantsiz pilatu ohi dira; eta da juntagailurik nagusi eta arruntena.
            - distributibuak: hitz elkarkideen bidez egiten da lokera kasu hauetan:

                alde batetik ... bestetik
                batak ..... besteak
                hala ..... nola
                nahiz ..... nahiz

            - disjuntibuak: esakuntza batek beste ukatzen edo duela adierazten dute:

                ala: "gorri ala more den ezagutzea" (Ax 325)

                edo: "zenbait trabu edo behaztopa" (Ax 6)

Oharra: Villasantek dio:

ala hitz markatua dela: disjuntibua

edo hitz markatu gabea: disjuntibu, baliokidetasunezko...

. adbertsatibuak: baiezkoa eta ezezkoa buruz buru ematen dituzte: "eztira hargatik aberatstenago, pobretzenago baizen" (Ax 156)

. baina: (baino gonbaratibuetan): esan diot etortzeko, baina ez da etorri

. baino (atzetik ipiniz): hori ez da gorria, zuria baino

. baizik, baizen (baino bezala)

. baizik eta

. barik: honek barik, hark egin du

. aitzitik: aitzitik edanago, egarriago; aitzitik badirudi ezen

Zenbait ohar koordinagailuez

- ETA, koordinagailu ez-ezik, subordinagailu ere gerta daiteke:

"ez da etorri, amak haur egin du eta" (Mitxelena; Villasante: Sintaxis... 16 or. (3)).

Bi perpaus bata bestearen ondoan emanik, bien artean ondoriotasun logiko bat gerta daiteke: Post hoc ergo propter hok.

Forma hori gipuzkeraz eta bizkaieraz.

- Erabilkera

. eta beti osorik

. elementu askoz eginiko perpaus edo sintagmetan, azkenari erasten dio eta Axularrek

. perpaus buruan ematean, perpaus arteko lokeratzat ematen da

. "gehiago oraindik" adierazteko ere erabiltzen da: "Hango Bizkondeak... izatu dira... estimatuak, fin eta leial fro-

gatuak. Eta bai egiazko fedearen eta legearen defendatzaile..." (Ax 3)

. Bai eta (baita) ere: ez du erabiltzen Axularrek, baina bai beste autore zaharrek:

. Axularrek: Halaber:badakit halaber; badio halaber

. Leizarragak: ecen hura da gure Magistrua..., bayeta gure exenplua eta patroia".

- SUBORDINATUAK

. Koordinatu eta subordinatuen arteko aldea:

. Koordinatuak beren artean trabatu bai, baina txertatu gabe.

. Subordinatuak, berriz, proposizio nagusien menpeko gertatzen dira: substantibu bat perpaus batetan zer gerta daitekeen, huraxe gerta daiteke proposizio subordinatua: subjektu, zuzen osagarri, zehar osagarri, osagarri zirkunstantzial.
Subordinatuari, zuzen osagarriren funtzioa betetzen duenean, konpletibua deritza.

. Subordinatu motak

. substantibu baten funtzioa betetzen dutenean:

. proposizio substantibu dira

- konpletibu: zuzen osagarri
- subjektibu: subjektu direnean
- zehar osagarri
- osagarri zirkunstantzial

. adjetibuak: izenlagun baten funtzioa betetzean, hots, erlatibu direnean

GALDEGAIA

Galdegai motak:

1.- Izen bat, izenorde bat

a) aditza sintetikoa denean:

a') esaldi baiezkoetan: gaur menditik aita dator

b') esaldi ezezkoetan: ez goaz Anbotora, ez goaz bihar Anbotora

c') baiezko galderetan: oinez ahal zetorren gizon hura?

d') ezezko galderetan: ez ahal darabil eskuan papera?

b) aditza perifrastikoa denean:

a') baiezko esaldietan: udan bildu dugu belarra

b') ezezko esaldietan: ez dut nik eraman liburua

c') baiezko galderetan: leihoan eduki ahal duzu lehortzen

d') ezezko galderetan: liburua ez ahal dizu lapur horrek kendu?

2.- Galdegaia, aditzak berak adierazten duen ekintza

a) aditza sintetikoa denean:

a') etorri dator aita; ibili dabil hori; ekarri dakar (egiten duena, etortzea da): bertan geratzen zela, baina etorri dator; atzo joan egin zen eta gaur etorri dator.

b) Perifrastikoekin: etorri egin da aita.

Flexioa, egin da ba; beraz, horren aurrean, galdegaia. Hargatik, gaizki dago hau: adiskideok gutxi-gutxitan ulertu egin nauzue. Honela behar: gutxi-gutxitan ulertu nauzue.

Oharra: Aditz adierazlea eta laguntzailea bereizi-

rik, ez bakarrik galdegaia denean:

- ekarri ez bekarren
- ekarri, ez nuen ekarri
- ez erosi bakarrik, pagau ere neuk egin dut
- ekarri neuk egin nuen // nork negar egin du (gaizki) nork egin du negar (ondo): galderetan galdegilea da galdegaia.

3.- Galdegaia aditzaren baiezkotasun edo ezezkotasuna

LEHEN URRATSAK-en arabera

Sintetikoetan

Baiezkoa: Badator

Ezezkoetan: ez- aditza - deus ez (ondoren zerbait ipiniko balitz, galdegai litzateke): motorra ez dabil.

Galderetan: - ba-ahal-aditza: Motorra ba ahal dabil?
- ez-ahal-aditza-deus ez: Motorra ez ahal dabil?

Perifrastikoetan

Baiezkoetan: (haseran aditza): ekarri zuen aitak liburua

Ezezkoetan: Ez zidak Amerikatik etorri den osabai eman erlojua

Galderetan: - ekarri ahal zuen liburua?
- ez ahal zuen ekarri liburua?

ALTUBE-ren arabera

Ezezkoak: - ez: gehienetan galdegaia
- batzutan, ordea, galdegaia izen bat da: zergatik ez datoz? Dirurik ez duelako ez dator

Baiezkoak: - sintetikoetan: ba- (beraz behin ere ez dator, dabil soilik, haseran, badator, badabil baizik
- perifrastikoetan: azentuaz bereizten dira.

Altube-ren arabera, ba- eta ez galdegai direnean, beste guztiak nahi den lekuan (Lehen Urratsak-en alderantzizi): ez dator inor gaur.

Labur- labur

ADITZ SINTETIKOAREKIN

a) Oraintxe dator (galdegaia: izena, baiezkoa)

b) orain etorri dator (galdegaia: aditza bera, baiezkoa)

c) etorri oraintxe dator (galdegaia: izena, baiezkoa)

d) orain badator (galdegaia: aditzaren baiezkotasuna, baiezkoa)

e) orain badator etorri (galdegaia: baiezkotasuna eta etortzea, biak dira).

ADITZ PERIFRASTIKOEKIN

a) oraintxe etorriko da (galdegaia: izena)

b) orain etorri egingo da (galdegaia: aditza bera)

c) etorri oraintxe egingo da (galdegaia: oraintxe eta etorri: biak)

d) orain etorriko da (galdegaia: baiezkotasuna)

e) orain, etorri, egingo da (galdegaia: baiezkotasuna eta etortzea).

Eritzi kritikoa

1. "Egun batez, konpaiñia on batean, euskaldunik baizen etzen lekuan nengoela, ekharri zuen solhasak, izan zen perpausa, etzuela deusek ere hanbat kalte egiten arimako, eta ez gorputzeko ere, nola egitekoen geroko utzteak, egunetik egunera, biharretik biharrera luzatzeak". (Axular, Irakurtzaileari, 6 zenb.).

- euskaldunik baizen, etzen-en galdegaia
- lekuan, nengoela-ren galdegaia
- ekharri zuen: zein da horren galdegaia?
  - ez da aditza bera: bestela, ekharri egin zuen beharko zukeen Altuberen arabera.
  - baiezkotasuna ere ez dirudi.
  - itxuraz, solhasak, da, eta atzetik dator
  - gauza bera, izan zen perpausa-rekin

2. Gonpara Joanen ebanjelioko pasarteok ere, nola euskaraturik diren: Jn 10, 3.

Haraneder: "Huni athatzainak idoquitzen dio, eta ardiek hunen boza aditzen dute: eta bere ardi propioak ditzen ditu ..."

Olabide: "Atezaiak oni atea zabaltzen dio, ta haren mintzoa ardiek ba-dazagute, ta onek bakoitzaren izenez bere ardiak deitu..."

Leizarraga: "Huni bortaltzainak irequiten drauka, etá ardiek honen voza entzuten dute, eta bere ardiak deitzen ditu ..."

Orixe: "Oni atezaiak atea idekitzen dio, ta ardiak aren abotsa ezagutzen dute. Ardiei beren izenez dei egiten die ..."

3. Esan behar da, Altubek berak ere salbuespenik onhartzen duela. Ikus Erderismos II. or.

a) "en oraciones con miembro inquirido largo y complejo se infringe a menudo esa regla: amak esan dit bihar lan asko daukala eta ezin etorri ahal izango dala.

b) "los vascos orientales..."

- han zako lotzen bizkar hezurrari

c) "los occidentales también..." zeuen ontasunari deutsagu zor"

SINTAXIA
(Letamendia)

Perpausak, bakunak eta elkartuak izan daitezke.

Hona emen bi perpaus bakun:

Eguraldi txarra dago

Ni mendira noa

Perpaus bakoitzak bere aldetik zentzu osoa du. Perpaus askatuak dira. Hala ere, perpaus biak baina juntagailuaren bidez lot ditzakegu:

Eguraldi txarra dago	baina	ni mendira noa
perpausa	lotura	perpausa

perpaus elkartuak

Honelako egitura dugu:

(perpausa) (perpausa)

edota Euler-Venn-en diagramaz:

perpausa perpausa

Ikus orain beste bi perpaus hauek:

Gizona ikusi dut

(Gizona) Tolosan bizi da

Biak -eN bidez lot ditzakegu, bigarrena (Tolosan bizi da) lehen perpauseko gizona sintagmaren menpean jarriaz:

Tolosan bizi deN

gizona ikusi dut.

Hau litzateke egitura:

(perpausa)
perpausa

diagramaz:

perpausa

perpausa

Perpaus biak alkarturik:

Tolosan bizi deN gizona ikusi dut

PERPAUS BAKUNAREN EGITURA

Perpausa berezko zentzu osoa duen sintagma da.

Horregatik, inoiz perpausa hitz bakarreko sintagma izango da.

Adibidez:

Goraintziak!

Barkatu!

Agur.

Hala ere perpaus gehienetan bi sintagma nagusi izango ditugu:

sujetoaren sintagma eta predikatuaren sintagma.

Honela adieraziko dugu perpausaren banaketa nagusia:

Perpausa

Sujetoaren sintagma Predikatuaren sintagma


Sujetoaren muina izena edo izen-ordaina izaten da, berehalaxe ikusiko dugunez.

Predikatuaren muina aditza da.

Hona emen adibide batzuk:

SUJETOA	PREDIKATUA
mutikoa	zetorren
Ainhoak	zekarren
basurdeak	agertu ziren
zuek	ikusi duzue

Lehenbiziko perpausa honela eman dezakegu arbolaz:



P = perpausa
IS = izen sintagma
Ad.S = aditz sintagma
I = izena
art. = artikulua

SUJETOAREN EGITURA

Sujetoa izen sintagma bat izaten da.

Sujetoaren muina izena edo izen-ordaina izaten da.

Muin horrek inguratzaile batzuk izan ditzake.

Har dezagun aurreko adibidea:

Mutikoa zetorren

Sujetoa mutikoa sintagma da. Sintagma honetan izena (mutiko) eta artikulua (-a) ditugu.


Hortaz,

sujeto = izen sintagma

izen sintagma = izena + artikulua

izena = mutiko

artikulua = -a



Muin hori inguratzaile batzuk gehituaz zabal dezakegu. Adjetibo bat edo batzuk gehituaz adibidez:

	mutiko izena	bihurri adjetiboa	a artikulua
gure adjetibo	mutiko izena	bihurri adjetiboa	a artikulua
zenbait adjetiboa	mutiko izena	bihurri adjetiboa	

Adibide hauetan muina beti izena dugu, gainerako gehigarriak inguratzaileak ditugu.

Sintagma genitiboak ere ezar ditzakegu muinari laguntzeko:

	Harotzaren S. genitiboa	mutiko izena	hura adjetiboa
Tolosako S. genitiboa	hiru adjetiboa	mutiko izena	haiek adjetiboa

Hona emen bada, izen sintagman ager daitezkeen elementuak adibide batzuekin:


INGURATZAILEAK MUINA INGURATZAILEAK

(SINTAGMA GENITIBOA)+(ADJETIBOA)+IZENA+(ADJETIBOA)+(ARTIKULUA)

		Aitor	
		lagun	- - - - - - - - - a
		lagun	. . hura
		lagun	. . zahar - - - a
	zure . .	lagun	. . zahar - - - a
harotzaren		lagun	. . zahar - - - a
Tolosako	hiru . .	lagun	. . zahar
	zenbait.	lagun	. . zahar

Ordena hau ez dugu hestuegi hartu behar, zenbaitetan aldatuxea etorriko baita; honelakoetan adibidez: zure aspaldiko laguna, Aita Zerukoa, Ama Doloretakoa, Hiru bertsolari antzinako, e.a. Funtsean sintagma genitiboak eta adjetiboak funtzio bera bete ohi dute, hots, izenaren lagun izatearena.

Aurreko eredu batzuen egiturak arbolaz emanda honela dira:



SINTAGMA GENITIBOA


Sintagma genitiboa moldatzeko morfema genitiboa ezartzen diogu izen sintagmari.

S. gen = IS + m.gen

Adibidez: zure semea = IS
zure semearen = S.gen.
zure semearen jostailua = IS

etxe handia = IS
etxe handiko = S.gen.
etxe handiko ataria = IS

Izen sintagmaren barruan sintagma genitiboa ere izan daiteke, eta sintagma genitiboaren barruan beste izen sintagma bat izaten dugu.



NOR eta NORK sujetoak

Euskaraz sujetoa NOR ala NORK izaten da.

Sujetoaren sintagma, hortaz, nominatibo ala ergatibo kasuan izango

dugu.

Perpausa NOR egiturakoa (intransitiboa) baldin bada, sujetoa nominatiboan izango da.

Perpausa NOR-NORK baldin bada (transitiboa), ergatiboan izango dugu sujetoa.

Adibidez:

Andoni zetorren
Mutikoa bihar iritsiko da
Basurdeak agertu ziren

Perpaus hauetan sujetoa NOR dugu: Andoni, mutikoa, basurdeak. Nominatiboan dator.

Baina ikus beste adibide hauek:

Andonik zekarren
Mutikoak liburua ekarri du
Basurdeek kalte handiak egin zituzten

Azken hiru hauetan NORK sujetoak ditugu: Andonik, mutikoak, basurdeek.

Sujetoaren sintagma ergatiboa izango da.

Bereiz ditzagun NOR eta NORK sujetoen egiturak:

P		P		
IS	Ad.S.	S.erg.		Ad.S.
I	aditza	I	m.erg.	aditza
Andoni	zetorren	Andoni	k	zekarren

SUJETOA PARTITIBOAN

Ezezko perpausa denean sujetoa partitiboan ager daiteke:

gizona azaldu da
dirua iritsi zen

baina

ez da gizonIK azaldu
ez zen dirurIK iritsi

Gizonik eta dirurik partitiboan ditugun sujetoak dira.

SUJETO GABEKO PERPAUSAK

Badira sujetorik ez duten perpausak.

adibidez:

euria ari du
elurra dihardu
eguna zabaldu du

Predikatu hauei NORK sujetoa dagokie, ez dute ordea.

P

IS AS

IS aditza

I art.

? elur a ari du

SUJETO BAKUNA ETA UGARIA

Orain arte ikusi ditugun sujetoek muin bakarra dute.
Badira, ordea, sujetoan bi muin eta gehiago dituzten perpausak.

Adibidez:

Itziar, Peru eta Jon datoz

P

sujetoa predikatua

IS IS lotura IS AS

I I I aditza

Itziar Peru eta Jon datoz

ARIKETAK

(Izen sintagma)

1. Esan ezazu izen sintagma hauetan:
   a) zein den muina
   b) nolakoak diren inguratzaileak (sintagma genitiboak, adjetiboak ala artikuluak).

Adibidez: etxeko mutil txikia

udako euskal unibertsitatea

etxeko	mutil	txiki	a
sintagma genitiboa	izena (muina)	adjetiboa	artikulua

Itziar
etxea
etxe dotorea
zenbait etxe
bi etxeak
herriko etxe zaharrak
gure izebaren soineko berria
itsasoko haize indartsu hura

2. Eman ezazu arbolaz izen sintagma hauen egitura:

adizkidea
adiskide handia
Donostiako alkatea
Andoniren fraka berdeak
Hiru gizon bizardunen itzala

3. Sintagma genitibo baten barruan izen sintagma dator, eta honen barruan berriro beste sintagma genitibo bat ager daiteke. Hori gogoan dadukazula ea nola antolatzen dituzun bi sintagma hauen arbolak:

Keparen zakurraren buztana
Irungo gudari zaharren afaria

4. Asma itzazu bi sintagma diferente egitura honetaz:

IS
S.gen. I adj. art.
IS m.gen.
S.gen. I
I m.gen.

....

5. Asma itzazu sujeto egokiak perpaus hauentzako. Batzuetan nominatiboan, besteetan ergatiboan beharko dira.

..... osaba ikustera doa. ..... osaba ikusi du.
..... merkeak dira. ..... asko balio dute.

6. Eman ezazu arbolaz sintagma ergatibo honen egitura:

Izaskunen senarrak (esan du).

PREDIKATUAREN EGITURA

Predikatua aditz sintagma da.

Predikatuaren muina, hortaz, aditza da.

Adibidez:

Neskatila atzo etxetik etorri zen.

Predikatua hemen atzo etxetik etorri zen dugu.

Predikatuaren muina etorri zen da.

atzo eta etxetik inguratzaileak dira.

Neskatila atzo etxetik etorri zen
(etorri zen: muina; predikatua)

Predikatuan muin gehiago ere ager daiteke; zenbat aditz hainbat muin.

Perpaus honetan, adibidez:

Neskatila atzo etorri zen eta bihar joango da.

etorri zen eta joango da ditugu hemen predikatuaren muinak.

Neskatila atzo etorri zen eta bihar joango da
(sujetoa; etorri zen eta joango da: predikatua; etorri zen: muina; joango da: muina)

ADITZAREN INGURATZAILEAK

Hauek izaten dira aditzaren inguratzaileak:

- osagarri zuzena
- zehar osagarria
- osagarri zirkunstanzialak
- atributoa

OSAGARRI ZUZENA

Osagarri zuzena NOR-NORK egituretan izaten dugu, hots, perpaus transitiboetan. Honelakoetan NORK sintagma izaten da sujetoa, eta NOR edo ZER sintagma osagarri zuzena.

Adibidez: Haurrak pilota dakar

---NORK dakar pilota?
---pilota HAURRAK dakar.

Perpaus honetan HAURRAK da sujetoa (sintagma ergatiboa)

---ZER dakar haurrak?
--- Haurrak Pilota dakar.

Osagarri zuzena PILOTA da (izen sintagma).

Era berean:

Axularrek Gero idatzi zuen.

Artzainek ardiak txaboletara bildu zituzten.

Garbiñek hitz politak esan dizkigu.

Zuk ez nauzu ni ongi ezagutzen.

PERPAUS ERLATIBOAK

Bibliografia

- Luis Villasante, Sintaxis de la oración compuesta. Arantzazu 1976.
- Ig. María Echaide, Tratado de sintaxis del idioma euskaro. Baroja, Donostia, 1912.

Erlatiboaren funtzioa.

1. Erlatiboak, berez, adjetibo baten funtzioa betetzen du. Honek substantiboa determinatzen bait du, orobat erlatiboak ere:

   . atzo etorri zen gizona
   . atzo etorririko gizona
   . atzo etorritako gizona
   . atzo etorri gizona

2. Zertarako bi elementu mota (erlatiboa eta adjetiboa) funtzio edo egiteko bera betetzeko?
   Erlatiboak, adjetiboaren funtzio mota bera bete arren, konzeptu nahasiagoa eta bihurriagoa adierazten du, adjetibo soil batez eman ezin ahal dena. Esaterako:

   a) . atzo ihesi joan zen gizona
      . atzo ihesi joaniko gizona
      baina

   b) hau egin duen gizona lapurra da
      hau egin dueniko...

3. Villasantek dio, euskaraz erlatiboak determinatzen duena ez dela beti substantiboa, eta adibide hauk dakartza:

   . zuk dakizun bezala
   . diruak dirauen artean
   . gerotik gerora gabiltzan bitartean

   Mitxelenak, berriz, dio: "aun hoy, arte, bitarte (no bezala)

son claramente substantivos".

Dena den, erlatibo hauetarik askok zirkustantzial funtzioa betetzen du:

Moduzkoak:

- "hurreneko kapituluan ageriko den bezala (Ax 343) (hemen ez da antexedente delakorik)
- Jainkoa den aldetik (en cuanto que es Dios)
- Gizona den aldetik
- Erran den moldean

- Moduzkoak dira, eta erlatiboak.
- Bezala horren ordez: neurrian, eran, erara
- Bezala hori, erlatibozko -n gabe eta bait- aurrizkiaz Axularrengan askotan: zeurk egina baitzendu bezala.
  - Entzuten denez: erlatibo -n eta -ez
  - Gauzak nola diren (= según)
  - Nolanahi den (= de cualquier forma que sea)

Denborazkoak:

- aspertzen denean (den orduan)
- ardoa dastatu zueneko (zuen orduko)
- bizi bitartean (bizi zen bitartean)
- ikusi zuen bezain fite

Erlatibo nominalizatua

Erlatiboak, esan dugu, adjetiboaren funtzioa betetzen du. Eta deklinatzean ere adjetiboa bezala konportatzen da; determinatzailea denez, beti (edo gehienetan) determinatuaren aurretik joan ohi da, determinatzen duen substantiboaren aurretik alegia (adjetibo soila ez da horrela konportatzen).

Horregatik, deklinatzen dena, substantiboa da (expresaturik denean), eta ez erlatiboa.

Baina, adjetibo soilaren kasuan bezala, substantiboa isilpetzen baldin bada, erlatiboak egiten du substantiboarena. Orduan bera da deklinatzen. Horri deritza erlatiboaren nominalizazioa:

. atzo etorri zen gizona (-aren, -arekin ...)

baina

. atzo etorri zena (-aren, -arekin...)

Erlatibo espezifikatiboak (restriktiboak) eta explikatiboak (ez-restriktiboak)

a) Espezifikatiboak (restriktiboak)

. "Urrun bizi ziren ikasleak berandu heldu ziren": urrun bizi ziren ikasleak bakarrik heldu ziren berandu
. Heldurik zen fruta jan genuen: heldurik zen fruta bakarrik

Espezifikatiboek, determinatzen duten substantiboaren zentzua murriztu, mugatu egiten dute.
Espezifikatiboak bakarrik dira erlatiboak, adjetibo funtzioa betetzen dutenak.

b) Explikatiboak (ez-restriktiboak)

. Ikasleak, urrun bait ziren, berandu iritsi ziren
. Fruta, heldurik bait zen, jan genuen

Explikatiboek, kualitate bat eransten diote substantiboari. Funtsean zera esaten da: ikasle guztiak iritsi zirela berandu; erlatibo delakoak, horren explikazio bat ematen du soilki, parentesi gisa konportatuz

Erlatibo formak

a) -n atzizkiaz

Hau da formarik usatuena erlatiboa moldatzeko.

Adibideak:

. egin duen lanak ez du batere balio

. behar diren bertze soinekoen egiteko (Ax 43) (=behar diren hainbat soineko egiteko)

. iraganean egin behar zuen ongia (Ax 113)

b) Antecedente delakorik gabeak: (me dieron que hacer, no había de quien fiarse).

- Nor, zer, zein galdegileez eta aditz partizipioz:

. badut zer kontaturik

. zer egina (eginik) badut

. zer esana ipintzen

Mitxelenak dio, erlatiboak ez, eta bai interrogatiboak direla aipatu horik.

- Nor ere, zer ere: Nork ere utziko baitu enegatik... etxerik, anaiarik, arrebarik... (Ax 326)

c) Nominalizazioa

- artikuluaz: Jaunaren Bildotsa, munduko bekatua kentzen duzuna, urrikal zakizkigu

Erakusleez

- Adibideak:

"Arantzan zaudenorrek, Ama, lagun neri"

"Buruan ille duzun baino bekhatu gehiago egin duzunorrek" (Ax 83)

"Nasan guzti au komunio santuan emoten natxazue" (Añibarro)

- Nominalizatua inesiboan aski arraroa, nahasgarri gerta daitekeelako noski. Esaterako:

. ikusi duenean (ikusi duen momentuan, bai, baina ikusi duen etxean esateko?)

Halere, inoizka ikusi ohi da inesiboan ere: "bat bederak naturalki desiratzen duenean" (=desiratzen duen plazerean; ez da beraz denborazkoa hor). "Kanporatzeko hain gaitz de-

nean" (=hain gaitz den plazerean) (Ax 226).

d) Forma bereziak: galdegilea gehi erakuslea.

- Zer ikusi, hura ikasi (zer ikusten dudan, eta hura esaten dut, edota, zer ikusten bait dut, hura esaten dut.

  Adibideak:

  . "zer baitaduka gogoan, hura aipha nahi du" (ax 258)
  . norat baitzaude makhurtua, harat...
  . Zein gainerat ere ikhusiren baituk iausten Ispiritua..., eta hura duk... (Araneder, Jn 1,33)

e) Zein-ekin

- Zein berez galdegilea da. Erlatibo gisan ere erabiltzen, ordea, molde hau, alabaina, explikatiboekin bakarrik.

- Adibideak:

  . Munduko etxe oni goiti ifini eutsan... egunerako eguzkia, zein sei milla urte oneetan beinbere urten baga egoz ezta (Añibarro)
  . Eta halakoak dira hirur bekhatu suerte hauk, zeinetzaz mintzo baikara presenteon (Ax 128)
  . Eta zu zarela iende hetarik, zeinengatik erraiten baitu Sofonias Profetak (Ax 361)
  . "Euskal gizarte komunistaz mintzo garelarik, klaserik gabeko gizartea dugu asmotan, fronterarik gabea, Estaurik gabea, zeinetan gizona neurri handi batetan lanatik libre izango bait da"...(Euskal alderdi politiko baten agieria).

- Zein honek singularreko eta pluraleko betekizuna betetzen du. Halere, bizkaieraz, pluralean zeintzuk forma erabili ohi dute.

- Zein hori sartzean, erlatibozko aditzak bait- edo -n hartzen du: Gaurko ebanjeliuan daukagu Jesukristok eginiko lenengo mirarija, zeinegaz asi zan mundubari agertuten Jaungoiko bene-

takua zana (P. Astarloa)

- Zeinaren (zeinen)

. Etxeberri Sarakoak zeinaren erabiltzen du: "Lehenbiziko deklinazioa da, zeinaren genitivoak bait bere akhabantza ae

. Axularrek zeinen erabiltzen du, mugagabe bezala.

f) Bait- aurrizkiaz

Funtsio asko ditu. Horietarik bat erlatiboarena. Iparraldekoetan erabiltzen batpat.

Berez ez da ezer. Erlazionatzailea da soilki, eta subordinazio marka da.

Bi sail handi bereiz genitzake:

1) galdegileren batekin doanean: nor, zer, zeren, zergatik, zein, nola, non
   - kausaletan: zeren... baitan: zeren berdin baitakusa eztuela probetxurik
   - leku zirkustantzialetan: non... bait: Joan zen Donapalaiora, non baitzen orduan Nafarroako Parlamenta (Ax 3)
   - erlatiboetan: zein... bait: zeiñi narraiokola erran baitut
   - kasu partikularrok:
     . nork ere erraiten baiteratzu (quienquiera que)
     . zer ere eskiribatuko baita euskaraz (cualquier cosa)
     . non ere...
     . norat ere...

2) bait- galdegilerik gabe
   - erlatibo explikatiboekin bakarrik:
     . los hombres que venian cansados (y solo ellos) entraron en casa
     . los hombres, que venian cansados, entraron en casa: gizonak, nekatuak baizetozen, etxean sartu ziren.
     Etxe hori, motozikleta atarian baitago, apezarena da. (Mitxelenak, Etxalarren entzuna)

Bait- honek funtzio asko ditu (ikus Villasante, Sintaxis...214-215 orr.): "y", "o sea que", "y es que", "pues que", "puesto que", "que"...

g) Euskal erlatiboaren problema bat

1) Gizona etorri da // gizonak Andoni du izena
Etorri den gizonak Andoni du izena

. Etorri den: perpaus erlatiboa
. Gizonak Andoni du izena: perpaus nagusia

Perpaus erlatiboak Gizonak substantiboa determinatzen du

2) Problrma, hemen aztertu nahi dena, hauxe da: zein kasutan egon daiteke -n atzizkiak ordezkatzen duen perpaus erlatiboz ko substantiboa, eta zein kasutan perpaus nagusian datorrena erlatiboak determinatzen duena?
Goian emaniko adibidean, -n atzizkiak ordezkatzen duena, gizona da, nor kasuan, eta berak determinatu, perpaus nagusiko gizonak determinatzen du.

3) -n erlatiboak adierazten duen substantiboari (aipatu kasuan: etorri da gizona) prozedente deritza; erlatiboak determinatzen duenari, berriz, (gizonak Andoni du izena) poszedente.
Hona bada.
Poszedentea, perpaus nagusiko substantiboa alegia, zein kasutan egon, ez dio axolarik.
Problematikoa, prozedentea, hau da, erlatiboa zein kasutan egon, da. Esaterako, bedi:
Prozedentea: elurragatik egin dut hau
Poszedentea: elurra asko gustatzen zait
Nola elkartu biok: Hau egin dudan elurra asko gustatzen zait?

4) Hona zein kasu konbinaketa gerta daitezkeen erlatiboekin:

. Nor/Nor: Zakurrak zuk ikusi duzun ogia jan dio gizonari
. Nor/Nork: Nik jan dizudan ogiak otarra betetzen zuen

. Nor/Nori: Zakurrak nik ikusi dudan gizonari ogia jan dio

. Nor/Zirkustantziala:

Nik ikusi dudan gizonarengan ez da gezurrik
gizonarekin
gizonarekiko
gizonaz
etxera ez da biderik
etxetik ez da biderik

. Nork/Nor: ogia jan duen gizona ikusi dut

. Nork/Nork: ogia jan duen gizonak ura eskatzen du

. Nork/Nori: Ogia jan diodan gizonari ura eskatu diot

. Nork/Zirkustantziala:

ogia jan duen gizonarengan gezurrik ez da
gizonarekin
gizonarekiko
gizonaz
gizonaganako ez da joerarik
gizonagandik ez da lanik

. Nori/Nor: nik ogia jan diodan gizona hil dute

. Nori/Nork: nik ogia jan diodan gizonak esan dit

. Nori/Nori: nik ogia jan diodan gizonari eman diote

. Nori/Zirkustantziala:

nik ogia jan diodan gizonarentzat ez da lanik
gizonarekin
gizonarengan
gizonaz

. Zirkustantziala/Nor:
zuk bi txori ikusi dituzu arbolan / arbola handia da

. Zirkustantziala/Nork:
zuk bi txori ikusi dituzu arbolan/arbolak hadarreria handia du

. Zirkustantziala/Nori:
zuk bi txori....arbolan/arbolari zu eman diote

. Zirkustantziala/zirkustantziala:
zuk bi txori....arbolan/arbolan nik sugea ikusi dut
zuk bi txori....arbolan/arbolatik jaitsi dut hau

Konklusioa. De Rijk-en arabera, prozedentea kasu hauetan denean, euskaraz eman daiteke erlatiboz:

1.- Nomin.: etorri den gizonak Andoni du izena

2.- Ergatib.: mila pezeta balio duen liburua salgai dago

3.- Datiboa: liburua eskatu diodan dendariak aurpegi txarra...

4.- Inesiboa: bizi naizen mendia gustatzen zait

5.- Direktiboa: joan behar dugun zinea merkea da

6.- Ablatiboa: irudi hau atera dudan liburua liburutegian nuen

7.- Instrum.: hitz egingo duen euskal historia ezezaguna dugu

Badirudi, azken bi hauk ezin onhartuzkoak direla.

MORFO-SINTAXIA: Esaldien sintaxia

ANALIZA ITZAZU ESALDIOK (30-37 orrietako teoriaren arabera)

1.- Evaren ume honek / bere desterruan, / ere desterruan / herri bat zor ziela naizbait jakin zuan, (Gandiaga, Hiru gizon bakarka, 66. orr.).

2.- Gure handikientzat / nik ez dut kanturik, / gutxirentzat baizik; / gehienak ez dute eman / pauso bat jatorrik. (ib.)

3.- Gure egia / ez dute ikusten / edo ez dute nahi / egiarik ikusi. (ib. "Blas Otero-ri". 98. orr.)

4.- Gure egia / geure Herria da / Herri bezala bizi nahi / dugun egarria (ib.)

5.- Herritasuna / saldu dutenak / edo saltzeko gertu / daudenak, / sal dezatela. (ib.).

6.- Lehenik maite baduzu, / lehenarekin oraina / nahi baduzu lotu / hor duzu hizkuntza, / hor duzu kondaira / ta kondaira-giltza (ib).

7.- Zer gehiago nahi duzu? / minak, pozak, nahigabeak / badituzte izenak (ib.).

8.- Egin zutena idatzi eta / hil ziren herri haundiak (ib.).

9.- Euskaldunek ez zuten idatzi / egin zutenik, baina / hitza ziguten utzi, / hitz bizia / egite guztia beregan duen hitza (ib.).

10.- Jaiki eta, astiro astiro, trintxerako erreka barna abiatu nintzen, atxurren klaskak eta harriaren gainera gogorrago erortzen ziren pikatxoien kolpeak hurbilago jotzen zuteneko bidea hartuaz (Martin Ugalde, Itsasoa ur-bazter luzea da, 30. orr.).

11.- Inork ez zuen erretzen, ez ziteken zigarro idorrik eduki giro hartan (ib. 31. or.).

12.- Haztaka, erramientak topatu zituzten azkenean, ilun lodi hartan; berriro, atxurkada nagi eta bustiak hasi ziren lokaztian (ib. 33. orr.).

13.- Eskuikale, Ezkerkale eta Erdikaleren elkar ikusi ezina zela ta, kantu parregarriak kantatzen zizkien iru kale hoiei Kaleiriko beste hamar kaleek (Mikel Zarate, Ipui antzeko, 39. orr.).

14.- Eskerrak hurkamenditik salto egin eta uretan murgildu zenean, urturitarrak auteskundeen beharrik etzutela izanen pentsatuaz etxeratu ziren (Anjel Lertxundi, Ajea du Urturik, 143. orr.).

15.- Horregatik esaten genuen hasieran: ez dela jokabide neutralik artistak bere obra dela medio joko bat egiten duena beti, egiaren ala gezurraren aldeko jokoa: betiko leloa (Edorta Kortadi, Artegintza, artista, gizartea, 95. orr.).

16.- Amayeurismoaren paradisu bihurtu dugun herri honetan, lotsagabekeria eta ausardia beti hogeitamaika eskutik ziren (Joxe Azurmendi, Iraultza sobietarra eta literatura, 87. orr.).

17.- Bakoitzat bere azkarkeriak predikatzen zituen, zekarkeenari begiratu gabe (ib.).

18.- Esateko eta ez esateko guziak esan dira, egokitasun politikoaz deus arduratu gabe (ib.).

19.- Hobe genuke bakoitzak bere zeregina ondo bete, eta ez unibertso guziaren kargu hartu eta dena endreatzen ibili (ib.).

20.- Poetak ez du politikarik egingo / politikoak ez du poemarik idatziko / tabernariak ez du biolinik joko/ astoak ez du marrurik egingo (X. Lete, Bigarren Poema Liburua, 147-148 or.; Joxe Azurmendik aipatua (ib.).

21.- Azpilek bere nortasun bereizia du. Eta herri batek, han edo hemen, gertaera honetan edo beste hartan / oinarritzen badu bere nortasuna, Azpilek bere iturri bereizietan finkatzen du berea (Juan Mari Irigoien, Oilarraren promesa, 38. orr.).

22.- Eta gehiago oraindik. Ni bezalako apezek eta zu bezalako agintariek Jainkoarengandik jasoa dugu agintea. Hortaz, Berak bakar-bakarrik ken diezaguke agintea. Horregatik, Don Kosme, eutsi gogor. Gauza gainera, ezin garbiago da... Zer mundu izanen litzateke hau, bestela, denek aginduko bagenu? Anarkia, Don Kosme, anarkia! (ib. 60-61 orr.)

23.- Geroztik Nekanek ez dio inori ateak ireki. Ez du bisitarik nahi, baina arratsaldeko zazpiretan Mirenen abotsa sumatu duenean, orduan bai, atea zabaldu du. (ib. 209. or.).

24.- Urteko izerdien saria eguraldiaren baitan ikuste honek fiakaitz eta neurritsu egiten du gizona (J.M.Satrustegi,Ekaitza,20 or.).

25.- Herri txikia da, izan ere, Udargi. Eta herri txikietako buruhauste haunditatik, libra gaitzazu Jauna, esan beharko genuke herriko apaiz zaharrak bezala. Mundua ongi joateko, Iruña izan behar lukeela herri txikiena, zion berak. Ni, berriz, talde txikien alde (ib. 10 or.).

26.- Euskal poesia modernoan, eta besteak beste, lehenik hizkuntza poetiko berezi bat sakonki itxuratu zuena Xabier Lizardi izan zen (X. Lete, Xabier Lizardi, olerkari eta prosista 13. or.).

27.- Hamaseigarren mendean Detxeparek bere poema erotiko bikainak idatzi zituelarik (erotikoak, erlijiozko eta euskarari buruzkoen artetik hartzearren), gauza garrantzitsu bat egin zuen: era pertsonal batetan eta ikuspegi berezi batetatik, gai zail, arantzadun eta sakon bat erabili zigun (ib. 14 or.).

28.- Baina, hala eta guztiz, eta Detxepareren poesiak euskara arkaiko indartsu baten arma guztia beregan badu ere, Detxeparek ez du poesi-hizkuntza berririk lantzen eta moldatzen (ib. 14 orr.).

29.- Poesia gauzak izendatzeko era bat dela uste dugunok, ez dugu, nahi ta nahiez, gauzek eguneroko ohituraz duten izen soila eraman behar dutenik uste hizan behar (ib. 14.or.).

30.- Diktadura / - batena eta bestearena -. / Demokrazia - batena eta bestearena -. / Herria / -batena eta bestearena -. / eta ez dakit / zenbat sistema / eta gauza gehiago./ Batzuek egiten beti...,/ besteek ogi apurrak jan... / Batzu goian / eta / besteak behean.../ Ni berriz hemen, / mundu mugatu honetan,/ sarritan bezala, / gehienetan bezala, / bakarrik..., / edozein sistematan, / edozein herritan, / "desadaptatu" / bat / izanen naizen / zihurtasun hutsarekin./ Eta ez uste / "desadaptatu" / bat / izateak / herririk ez maitatzea/ edo / sistema guztiak berdintzea / esan nahi duenik./ Agintzea ez dut gogozko./ Agindua izatea ez zait atsegin. / Honengatik / "desadaptatu" / bat / izanen naiz / baina hori ere... / Jainkoari eskerrak / (Juan M. Irigoien, Hutsatik esperantzara, Colec. Premios Literarios Ciudad de Irun, 23-25 orr.).

31.- Ez da dena tristura, / ez da dena negar, / ez da dena zuzengabekeria, / ez da dena heriotz... / Anitz arantze dago, / ba, / bainan ez dana arantze (Id. eta ib. 73. orr.).

32.- Heriotzaren eta bizitzaren mugetan / ez dakit / pausorik ematerik / Heriotzaren eta bizitzaren mugetan / harriturik arkitzen naiz, / harriturik eta bildurturik (Iñaki Zubizarreta, ib.125 or.).

33.-

euskera
lur honen tankera
nere hizkera

maite zaitut
euskera
gurea zeralako,

zugan sortu naizelako
milla ta milla urtetako
herri baten
lana
mila
maitasuna
zoriona
zugan osatuak daudelako
behar zaitut zure bitartez
euskera haien berri jakin dudalako,
zeren,
zu gabe
ahulegia nintzake
bizitzaren burrukarako,
zu gabe
bakarregi aurkituko
deusezaren haunditasunean galduta.

(Joxe Anton Arze, "harzabal", "Isturitze-tik tolosan barrena", 1969)

Ez zaitez joan, /eman zaidazu zeure gorputzaren beroa / eta utz zeure ezpainari nere amodioa dastatzen; / ez zaitez joan,/ atoz, / zeren, gorputza somatzen dut gogortzen / eta neure burua hiltzen, / ez zaitez joan, / atoz nere bigunaren babesera. (Ama Lasa, Poema Bilduma 18. or.).

ANALIXI SINTAKTIKOA

1.- "Aesopus, filosofa eder eta maitagarri hark dio; zicada deitatzen den hegaztin eta xori kantatzale hark, udan bere denbora oro, kantuz eta alagarantziaz enplegatzen diala, eta inihurriak, baita, animale xipi bat eta zuhur bat, bere uda oro enplegatzen diala tribailluz eta penaz probisione eta bazka biltzen... (Tartas, Onsa hiltzeko bidia, Jakin, 1975, 70. or.).

2.- "neure adiskidia, saindu bat herioaren beldurrian bizirik, haren beldurra bihotzian hiltzen bada, zer eginen dugu guk, bekatian gure bizia eta gure denbora enplegatzen baitugu?" (ib.131or).

3.- "Nik atzo, hik baiño bide gehiago iragan nian, inguratu bainuen mundu guztia, eta orai ere, hi baiño goizago iaiki nauk" (Ax.).

4.- "Zeren nola eritasun handiak, sendatuz gero ere, utzten ohi baitu bere ondotik zenbait herru gaixto, zenbait kutsu, narrio eta arrazadura, hala utzten du denbora luzeaz bekhatutan egoiteak ere bere ondotik, zenbait ondore gaixto" (Ax.).

5.- "Jaungoikoak daigula osasuna; baiña inor gaisotuten bada zu bizi zareala, ezkara beste baten atzean ibilliko. Bedeinkatu degun legez maia ianaurrean, emon daioguzan eskerrak Jaungoikoari. Artuko dogu beroaldi bat guztiok, esango dogu errosarioa, ta ioango gara bakotza bere gelara" (Mogel)

6.- "Beteten dabee sabela ogi beratu ta ondo koipetuz, otuten iakenean, ta eztozu zuk iñoz ian gauza gozoagorik" (Mogel).

7.- "Badira zenbait zar gai onetan eskolamaisu andiak, Demonioak bere ordeko lurrean ipiñiak: oek gazteen aurrean contatzen ditue ipui itsusiak, alako gatz, eta piparrarekin, non gazteak egon oi diran aua zabaldurik zar madarikatuaren erakutsaldiak entzuten" (Asteasuko J.B. Agirre).

8.- "Begira, gaizki bizitu ziñan urte aetan sarritan joaten ote ziñan festetara, eztaietara, edo neskatxa mutillen batzarreetara, eta azalprintz oneco guziakin atsegin artu naya izan oi zenduan? (id.).

1. Aesopus, filosofa eder eta maitagarri hark: IS Morf erg
dio... : AS
zicada deitzen den: AS Morf -n (erlatiboa)
hegaztin eta xori kantatzale hark: IS Morf erg
udan bere denbora ere kantuz... enplegatzen diala: AS Morf -la (konplet.)
inihurriak: IS Morf erg
baita animale xipi bat eta zuhur bat: AS bait- (erlatibo explikatiboa)
bere uda ere enplegatzen diala... : AS - Morf - -la (konpletiboa)
tribailluz eta penaz probisione egiten...: zirkunstal modala

udako euskal unibertsitatea